


**ENQUÊTE SUR UN SCANDALE D'ÉTAT / UNDERCOVER • Frantzia**

Thierry de Peretti (zuzendaria, gidoilaria)  
Vincent Lindon (aktorea)

SERGIO BASURKO

Thierry de Peretti zinemagileak *Enquête sur un scandale d'état* filma aurkeztu du Sail Ofizialean. Filmean iragan lausoko espioi ohi bat Libération egunkariko kazetari batekin harramanetan jarriko da polizia frantsesak zuzendutako narkotrafiko-sare bat agerian jartzeko.

Prentsaurrekoaren moderatzaileak proiektuaren sorreraz galdetu eta errealizadoreak heldu dio erronkari: "L'infiltré izeneko liburu baten egokitzapena egitea proposatu zidaten eta istorioaren irakurketak zipla harrapatu ninduen. Liburuaz gehien interesatu zitzaidana idazketa estiloa izan zen, pertsonaia bakoitza kontakizunarekin nola uztartzen zen. Hasieratik argi izan nuen ez nuela narkotrafikoari buruzko edo estatu frantsesaren goi-mailako ustelkeriari buruzko tratatu zabal bat egin nahi. Interesatzen zitzaidana zera zen, narkotrafikoaren aurkako borrokan alderdi bakoitzak bere diskurtsoa nola eratzten duen islatzea".

"Ildo horretan, azpimarratu nahi dut, nire filma dramatizazioaren bidez adierazi arren, bertan entzuten diren elkarrizketa ia guztiak bizitza errealean eman zirela. Hortik aurrera, guri dagokiguna egia kontatu zaigun ala ez erabakitzea", jarraitu du xehetasunetan sakontzen.

Kazetariaren galderetako asko, hain zuzen ere, pertsonaia 'errealen' ekintzen etikaren ingurukoak izan dira, alegia, non dagoen ongiaren eta gaizkiaren arteko muga narkotrafikoa borrokatzerakoan. De Perettiren aburuz: "Pertsonaia bat pantailaratzten dudanean, beti saiatzen naiz pertsonaia horrek bizi duen errealitatearen konplexutasuna ulertarazten. Ez zait interesatzen baloreen judizioa, bere ekintzetatik datozen argiak eta itzalak baizik".

Vincent Lindon aktorea bat dator zuzendariaren iritziarekin: "Azkenaldian asko kostatzen zait heroiak bilauetatik bereiztea. Nola esan, uste dut egon badaudela gauza gaizto eta zitalak egiten dituzten heroiak eta, halaber, ekintza onak egiten dituzten bilauak. Pertsonaia konplexuak gustatzen zaizkit, pentsatzen dutenak, pentsarazten dizutenak. Nire pertsonaiari dagokionez -narkotrafikoaren aurkako borrokan buru den polizia goi-kargu

# Poliziak narkotrafikoan duen inplikazioaren salaketa irmoa



Thierry de Peretti zuzendaria Vincent Lindon aktore ezagunarekin.

JORGE FUENBUENA

bat-, esan dezakedan gauza bakarra da oso profesionala iruditzen zaidala. Hau da, kargurako pertsona egokia da. Horrek on ala gaizto bihurtzen zaitu? Ezin dizuet erantzun zehatzik eman".

Pertsonaia bat prestatzeko bere metodologiari buruz galdetuta, Lindonek erantzun du: "Lehen esan badut kosta egiten zaidala ongia eta gaizkia bereiztea, esan behar dut, halaber, gero eta gehiago kostatzen zaidala jakitea noiz nagoen lanean eta noiz ez. Nire

ustez, aktore batek etengabe egon behar du bere bizipenak barnerraten, inoiz ez baitakizu antzezterakoan noiz erabili ahalko dituzun". Eta erdi txantxetan honako adibidea jartzen du: "Polizia baten papera egiteko ez dut polizia-munduari buruzko ikerketarik egin behar, gogoraziko dizuet gauza batengatik edo besteagatik nire bizitzan polizia-etxe asko bisitatu izan ditudala".

Thierry de Perettik atzera hartu du hitza: "Narratiboki, filmearen behin-

-behinekotasunaren eta arintasunaren kontuak kezkatzen ninduen. Era berean, filma indar handikoa izatea nahi nuen, baina ikusgarritasunean erori gabe. Horretarako, generoaren erreferenteak izan nituen gogoan, Alan J. Pakularen *All the President's Men* eta David Fincherren *Zodiac*, esaterako.

Eta, azkenetako, labankada pare bat: "Filmean, alde batera ezin utzi zitekeen dimentsio politiko nabarmena dago. Bertan, besteak beste, estatu

## Investigating the darkest corners of the Republic

French filmmaker Thierry de Peretti presented his film *Enquête sur un scandale d'état/Undercover* yesterday in the Official Selection. It is set in 2015 and deals with the scandal created by revelations that an investigative journalist receives about the French State's involvement in drug trafficking, which lead him into the darkest corners of the French Republic. The filmmaker explained to the press that he was interested in showing how journalist research is carried out and how a news story like this is created, how a journalist works with his sources and how a scandal is manufactured. He also pointed out that what he was interested in from a cinematic perspective were the real people that this story revolves around. "Everything that appears in the film is true, everything they say was actually said although I don't know if everything that was said is true."

Vincent Lindon, who plays a high-ranking police officer at the heart of the scandal, said that he felt that recently he found it really difficult to tell the difference between heroes and villains. "I think there may be heroes that do wicked things and villains that do good things. I like complex characters that think and make you think."

demokratiko askok polizia-organo paraleloetara jo dute beren interesen alde borrokatzeko, jasotako erasoetatik defendatzeko. Zentzu horretan, uste dut ez dudala ezer deskubritzen, filmaren une jakin batean, terrorismoa borrokatzeko estatu espainiarraren eta frantsesaren azpijoko zikinen aipua agertzen bada".

## LOS PROTAGONISTAS DE LA CARRETERA



VEHÍCULOS CON CONDUCTOR

automóviles · microbuses · autobuses





vallina

BUS AUTO

943 39 38 48